

ONGI IBILTZEKO DEKALOGOIA

Online ikastaro batean izena eman nahi baduzu, garrantzitsua da dekalogo hau irakurtzea:

- 1) Konexio ona izatea ezinbestekoa da.
- 2) Prestatu zure konfigurazioa: hizkuntza bat ikasteko audioak eta bideoak oso inportanteak dira. Horregatik, kamera eta mikrofonoa ezinbestekoak dira gela birtualean parte hartu ahal izateko.
- 3) Informatikan oinarrizko gaitasuna izatea (posta elektronikoaren erabilera, pantaila partekatzea, dokumentuak, arbela...). Dena dela, lehenengo egunetan trebatzen ibiliko gara, hainbatetan, arzoak sortzen baitira. Beraz, momentu horietan pazientzia izan beharko dugu. Honez gain, komenigarria da google kontua izatea dokumentuak partekatzeari arazorik ez izateko.
- 4) Prestatu toki egokia eskolak jasotzeko. Toki lasaia eta isila konzentratzeko. Ez ibili lanean edo autoan klasea jasotzen.
- 5) Etxeko lana baldin baduzu, saiatu garaiz bidaltzen.
- 6) Hoberena ordenagailuak dira. Ahal den neurrian, saihestu sakelako telefonoak.
- 7) Ordutegi zehatza dago. Mesedez, errespetatu hasierako eta bukaerako ordutegiak.
- 8) Taldekatzeak egingo dira elkarreraginari bultzada emateko. Parte hartu horietan!
- 9) Hizkuntza bat ikasteko, giro ona izatea funtsezkoa da. Giroa denon artean sortzen dugu.
- 10) Eskolen ordutegiaren barruan 15 minutu daude tutoretzarako. Edozein zalantza izanez gero, probestu tarte hori dena argitzeko. Aldez aurretik esan irakasleari zein den zure zalantza.

MILA ESKER KONTUAN HARTZEAGATIK ETA LASTER ARTE!